

Erronka honi aurre egiteko garaian, ez zitzaigun ezer berritzailea bururatzen ez baikara oso adituak ideia berritzaileak edukitzerako garaian eta proiektua aurrera eramatean eduki genuen arazo handiena hori bera izan zen, ideiarik ez edukitzea. Behin ideia genuela, gauzak oso erraz joan ziren. Taldekideen artean ondo moldatu garenez lana banatu eta egiterakoan, ez dugu arazorik eduki proiektua aurrera eramateko.

Beraz, ikasleontzat onuragarria izan daitekeen produktu batean pentsatu genuen. Horrela, ohartu ginen boligrafo bat behar genuela tipex erantsiarekin, irakasle askok ez baitute uzten material bat baino gehiago edukitzen mahaiaren gainean azterketa garaietan. Hasieran, herriko liburu-dendetara saltzea pentsatu dugu, horretarako beraiekin adostasun batera iritsiz. Ikusten badugu, gure produktuak arrakasta duela, Internet bidez saltzen hasiko ginateke.

